



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko urriaren 14an

83 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Foru Lege Proiektua, Sarrigureno udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta eraikitzeko prozesua arautzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoko zuzenketak (10. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (11. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egin dezan alkateek zein kontzejuburuek kontratazioak egiteko dituzten eskumenei buruz Nafarroako Kontseiluak emandako irizpena. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da botika generikoak ezagutzeko eta horien gainean informatzeko eta sentsibilizatzeko kanpaina bat abian jar dezan. Osoko Bilkurak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan erregaien salneurrien igoera saihesteko. Osoko Bilkurak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nazioko Gobernua premiatzen da erregaien prezioaren inguruko neurriak har ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere langileen eta azpikontratutako langileen segurtasuna eta osasuna bermatuko dituen aurreneurrien plan bat egin dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege Proiektua, Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta eraikitzekeo prozesua arautzen duena

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta eraikitzekeo prozesua arautzen duen Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezela agindu dut. Proiektu hori 2000ko irailaren 4ko 67 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Nafarroako Gobernuari itzultzeko, Sarrigurengo udalez gaindiko plan sektorialak ukitutako eremua urbanizatzeko eta bertan eraikitzekeo prozesua arautzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztua.

IUN-NEB Parlamentuko Taldeak Sarrigurenen lurzoru publikoa saltzeko lege proiektua aztertu du. Proiektu horretan sarturik daude lurzoru publiko basterentzeko prozedurak (lehiaketa, trukea, lagapena), etxebizitzak eta merkataritza eremuak eraikitzekeo, bai eta industriarako lurzorua urbanizatzeko ere. IUN-NEB taldearen ustez proiektu honek aukera handiak ematen dizkio UPNren Gobernuari hirigintzako operazioak behar besteko gardentasunik gabe egiteko.

2. ZUZENKETA

JOSE M^a AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA **FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Osoko zuzenketa Sarrigurengo udalez gaindiko plan sektorialak ukitutako eremua urbanizatu eta bertan eraikitzekeo prozesua arautzen duen Lege proiektuari.

Esku artean dugun Lege proiektuaren testua behin ezaguturik, EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldearen iritzia da ez diela erantzuten gure Komunitateko herritarrek etxebizitza arloan dituzten premiei.

Etxebizitza duina izateko eskubidea, hezkuntzarako edo osasunerako eskubideekin batera, administrazio publikoek beren administratuei bermatu behar dizkietenetako bat da.

Herritar guztiek dute eskubide hori, zeinahi dela ere haien ahalmen ekonomikoa. Hori dela eta, Parlamentuko talde honen ustez ez da behar adinakoa proiektuan babes ofizialeko etxebizitzaren arloan egiten den ahalegina. Are gehiago beste proiektu batzuen kasuei begiratu gero, hasiera batean BOE asko aurreikusi arren, gero asmo on guztiak desagertu egiten baitziren.

Sarrigurengo urbanizazio proiektuari ekohiriaren kontzeptua atxikitzekeo helburua txalogarria iruditzen baizaigu ere, ez da gure ustez oso egokia kontzeptua gauzatzeko modua, ez eta aurrerago aipatuko ditugun beste zehaztapen batzuk ere.

Gure taldearen iritziz, barneko oreka ekologikoa eta eskualdekoa, orokorra, lortzeko bidea da eremu zehatz bateko banakako jarduketatik osokora pasatzea.

Lehenago aipatutako helburua lortzeko nahiko bermerik ez dago, oreka ekologikoa betebehartzat

baino etxebizitza loteak saltzeko balorazio faktoretzat jotzen delako.

Gure taldeak uste du, eskualde horri gune anitzeko eremu baten eitea ematea, populazio sakanatu eta desordenatuaren aukeren aurrean, aferan zerikusia duten eragileen arteko eztabaida ireki eta egiazkoaren ondorioz erabaki beharko dela, eta ez Nafarroako Gobernuako Etxebizitza Departamentuak hala ezarririk.

Nolanahi ere, jarduketa mota honek izaten dituzten ondorioez jabeturik, garaia da elkartu eta planifikatzeko esparru bat ezartzeko maila horretan, planifikazio estrategikorako ahalmena erraztu eta Administrazioaren maila horretara eraman dezan.

Era berean, EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldearen ustez, merkataritzako zentro bat ere hartuko duen "aukera eremua" izeneko horretan ezarriko diren enpresa ekimenen oinarrian ez dago kokagune berria, eskualdea eta erregioa baizik, eta horri begira, behar horiek ez dira objektiboki zehaztu.

Merkataritzaren alorrean ez dugu oraindik, ezagun denik, behintzat, lurralde mailako azterlanik, ondorio juridikoak dituenik, eta gobernu honek merkataritzako eta aisiarako eremuak zehazten segitzen du hiriburuaren aldirietan, Biltzarraren gehiengoak eskatutako tresna hori, merkataritzari buruzko lege orokorra, alegia, eduki gabe.

Gure taldeak desegokia irizten dio dinamika horri, bai eta atzera egiterik ez duenaren estrategia erabiltzea ere, gure aldetik salatze modukoa.

Proiektuak galarazten du enkantearen sistema erabiltzea lurzatiak, bereziki etxebizitzetarako ez direnak, adjudikatzeko, eta gure taldearen iritziz sistema aproposena izanen litzateke, prozedura garbia izan dadin.

Hori guztia dela eta, Foru Parlamentuaren Osoko Bilkurari proposatzen zaio Sarrigurengo udalez gaindiko plan sektorialak ukitutako eremua urbanizatu eta bertan eraikitzeko prozesua arautzen duen Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzeko erabakia har dezala.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa

1. artikulua amaietan, eduki hau gehitzea:

... “; prozesuak bereizita egin beharko dira lurzatiek duten hirigintza xedearen arabera, eta bigarren eta hirugarren artikuluetan ezarritako prozedurak aplikatuko dira lurzorua etxebizitzetarako den edo jarduera ekonomikoetarako den kontuan harturik.”

Zioak: Lurzati besterentzea edo eskualdakea bereizita eta prozedura desberdinak erabiliz egin beharko da, lurzorua etxebizitzetarako edo jarduera ekonomikoetarako den kontuan harturik.

2. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMOCRATAS DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

1. artikulutik kentzea azken esaldia, “haientzat kalkulatzen den balio ekonomikoa gorabehera”, alegia.

Bigarren lerrokada hau eranstea:

“Lurzati eraikigarriak eta haiei atxikiriko eskubiak publizitate eta konkurrentzia publikoa betez besterendu beharko dira eta, halaber, horien garrantasuna erabatekoa izanen dela bermatuko da. Besterentze edo lagatze prozesu guztien baldintza pleguetan hirigintza planeamenduak ezarritako interes orokorreko helburuak beteko direla ziurtatzeko bermeak ezarriko dira, bai eta espekulazioa, gainprezioa edo eraikinen gaineko edozein motatako iruzurrik gerta ez dadin”.

Zioak: Balio ekonomikoa aintzat hartu beharko da beti, besterentze prozedura edozein izanik ere, kontraprestaziorik eragiten ez badu ere.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

3. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa

2. artikulua b) idatz-zatiaren azken lerroka da kentzea proposatzen da, zehazki "kasu horretan..." hasi eta "...baldintza guztiak bete ditzaten." dioen arte.

Zioak: Etxebizitza babestuei buruzko legeek ezarritako betebeharrak orokorra da. Errepikatu baidir ez du egiten.

4. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko d) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Trukea kentzea, eragiketa nahasi, ez oso gardenak eta interes orokorarentzako errentagarritasun gutxikoak gertatzeko bide izan daitekeelako.

5. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Testua hauxe izanen da:

"2. artikulua.

1.- Aurreko artikuluan aipatu ondasunak, merkataritzan edo aisian erabiltzeko kalifikazioa ez dutenak, besterendu edo eskualdatzeko honako bide hauek baino ezin dira erabili:

a) Lehiaketa publikoa.

b) Nafarroako Gobernuaren sozietate instrumentalei zuzenean besterendu edo eskualdatzea edo, bestela, irabazteko asmorik ez duten laguntzako entitate edo gizarte entitate eskatzaileei; konparazio batera, fundazioak, mutualitateak edo kooperatibak.

c) Lagapenak, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 274. artikulua agindu bezala, pla-

neamenduan ezarritakoaren arabera bidezkoak baldin badira.

2.-Aurreko artikulua aipatzen dituen ondasunak, merkataritzan edo aisian erabiltzeko kalifikazioa dutenak, besterentzeko enkantearen prozedura baino ezin da erabili."

Zioak: Enkantearen prozedura sartzea merkataritzan eta aisian erabiltzeko kalifikazioa duten lurzatiak besterentzean, eta trukea kentzea, eragiketa nahasi, ez oso garden eta interes orokorarentzat errentagarritasun gutxikoak gertatzeko bide izan daitekeelakoan.

6. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMOCRATAS DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

Aurreko artikuluan aipatu ondasunak, etxebizitzetarako, sustapen edo babes publikoaren araubidean eraikiak izateko direnak, besterendu edo eskualdatzeko honako bide hauek baino ezin dira erabili:

1.- Lehiaketa publikoa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2.- Zuzenean, hitzarmen bidez, beste administrazio publiko batzuei eta haien sozietate instrumentalei.

3.- Zuzenean, lehiaketa bidez, irabazteko asmorik ez duten laguntzako entitate edo gizarte entitate eskatzaileei, erabilera publikoko edo gizartearen intereseko ekipamendu, zerbitzu edo instalazioak, bai eta babes publikoko araubideren baten menpeko etxebizitzak ere, sustatzeko.

4.- 2 eta 3. idatz-zatietan aurreikusitako zuzeneko lagapenaren kasuetan, gizartearen interesaren muntak behar bezala justifikatzen baditu, lagapena doakoa edo hirigintza balioa baino merkeagoa izan daiteke.

5.- Nafarroako Gobernuak ezarritako beste-entzako baldintzak, besterentzearen helburuak eta etxebizitza edo ekipamendua eskuratzeko eskatutako baldintzak betetzen direla bermatuko dituztenak. Baldintza horien artean itzulketarako aukera eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideez baliatzea ezarri ahalko dira.

6.- Etxebizitzetarako ondasunak, etxebizitza librearen araubidean eraikiak izateko, edo merkataritza, industria edo zerbitzuetako erabileretarako direnak, edo irabazi asmoekin erabili edo ustiatu daitezkeenak, enkante publikoaren bidez besterendu edo eskualdatuko dira, Nafarroako Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legeak ezarritako baldintzetan.

7. 1. artikulua aipatzen duen ondasun eta eskubideen trukea erabili ahal izanen da, hirigintza planeamendutik eta etxebizitza eta zerbitzuen programetatik heldu diren interes sozialen xedeak beteko direla bermatzen bada. Balorazioa hirigintza probetxamenduen arabera egingen da.

Trukeak Nafarroako Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legeak ezarritako araubideari lotu beharko zaizkio. Baldintza pleguetan xedeak betetzea bermatuko duten betebeharrak, eraikuntzaz, urbanizazioaz, besterentze prezioez, etab.ez, zehaztuko dira”.

Zioak: Araubide desberdinak aurreikusi eta besterentzeko sistema horietara egokitzea.

7. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa

2. artikulua eta artikulua horren a) idatz-zatiaren testu berria:

2. artikulua. Aurreko artikuluan aipatu ondasunak, etxebizitzetarako eremuan sartutakoak, besterendu edo eskualdatzeko bide hauek erabili ahalko dira:

a) Lehiaketa-enkantea edo enkantea.

Zioak: Lurzorua besterentzeko legezko beste prozedura batzuk, enkantea, kasu, ez baztertea.

8. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2.b artikulua aldatzeko zuzenketa

2. artikulua b) idatz-zatiaren testu berria:

“b) Nafarroako Gobernuaren sozietate instrumentalei zuzenean besterendu edo eskualdatzea edo, bestela, irabazteko asmorik ez duten laguntzako entitate, gizarte entitate edo sindikatu

eskatzaileei, nolabaiteko babes publikoa izanen duten etxebizitzaren eraikuntza sustatu eta sustapenaren bideragarritasuna bermatzeko esperientzia eta bitartekoak dituztela frogatzen badute. Kasu horretan, Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu babes publikoaren araubideko etxebizitzaren azken erabiltzaileek etxebizitza horiek eskuratzeko eskatzen diren baldintza guztiak bete ditzaten.”

Zioak: Testu argiagoa proposatzen da, babes ofizialeko etxebizitza berrien eraikuntzan irabazi asmorik gabeko entitateek esku har dezaten lortzeko.

9. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko b) letra ordeztzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“b) Nafarroako Gobernuaren sozietate instrumentalei zuzenean besterendu edo eskualdatzea edo, bestela, irabazteko asmorik ez duten laguntzako entitate edo gizarte entitate eskatzaileei; konparazio batera, fundazioak, mutualitateak edo kooperatibak.”.

Zioak: Proiektuaren testua nahasgarria da. Argiagoa izan behar dela planteatzen dugu.

10. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

Artikulu berri bat gehitzea (eta ordena aldatzea bigarrenetik hasita)

3. artikulua. Lehendabiziko artikulua aipatzen dituen ondasunak, jarduera ekonomikoen eremuan sartutakoak, besterendu edo eskualdatzeko enkante publikoaren prozedura erabili beharko da nahitaez.

Zioak: Eremu ekonomikoetarako lurzatiak enkantearen bidez adjudikatu beharko dira, formularik gardenena eta diru-kutxa publikoetarako diru gehien ekarriko lukeena delako.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

11. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua 2 zenbakia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lege proiektuak aurreikusten du, hala-ber, urbanizazio horretan behar diren dotazioak entitate pribatuen esku gelditu ahalko direla lurzoru lagapenak eginez. Horrela, eskola eraikin bat ente pribatu batek egin dezake, Gobernuak lurzoru laga ondotik. Dotazioetarako ente pribatuei lurzorua lagatzea ez da lege proiektu honen xedea, eta gure iritzia haren kontrakoa da.

12. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMOCRATAS DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe izanen da testua:

“1. Nafarroako Gobernu departamentu eskudunak ahalmena izanen du urbanizatzeko kudeaketa jarduerak eta aurreikusitako planeamendua burutzeko behar diren bestelakoak titulartasun publikoko sozietate instrumentalen gain uzteko”.

Zioak: Zehaztea sozietate horiek direla, soilik, kapitala administrazio publikoena dutenak.

13. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua gehiketa egiteko zuzenketa

3. artikulua 1. puntuan honakoa gehitzea proposatzen da:

“...sozietate instrumental publikoen gain uzteko”.

Zioak: Argitzea sozietate instrumentalek publikoak izan behar dutela, Nafarroako Gobernutik edo toki entitateetatik independenteak, kudeaketaren helburuagatik beragatik.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

14. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua e) letra kentzeko zuzenketa

Zioak: Sustatzen diren babes ofizialeko etxebizitzaren azken erabiltzaileei adjudikatzeko prozedura objektiboagoa eta gardenagoa izatea. Gure proposamena da adjudikazioa zozketa bidezkoa izatea eta prozesu osoa Gobernuak eta Departamentuak eramatea, eta ez etxebizitzaren sustatzaileek.

15. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMOCRATAS DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu honekin ordeztea proposatzen da:

“Lurzorua besterentzeko prozedura guztietan Nafarroako Gobernu departamentu eskudunak edo, bestela, kasuan kasuko sozietate instrumentalak, dagozkion baremoetan, honako alderdi hauei buruzko baldintza batzuk bete daitezela eskatu edo baloratu ahalko du, ezartzen den lehentasunarekin:

1.- Urbanizatu eta eraikitze epeak.

2.- Etxebizitzak eta lokalak saldu edo errentan emateko prezioak eta baldintzak.

3.- Etxebizitzaren azken erabiltzaileen ezaugarri sozioekonomikoak, horien barrenean direla familia egoera, etxebizitzaren beharra norainokoa den eta dirusarrerak.

4.- Arkitektura eta ingurugiroaren aldetiko kalitatea.

5.- Egin gogo den sustapenaren bideragarritasun ekonomikoa.

6.- Proposamenaren bideragarritasun teknikoak bermatzeko, lizitatzaila proposamenean hitz emandako baliabideen ezaugarri profesional eta teknikoak”.

Zioak: Kontzeptuak osatu eta haien arteko lehentasunak ezartzea.

16. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren artikulua ordezteko zuzenketa

Laugarren artikulua testu berria:

4. artikulua. Etxebizitzetarako eremuko lurzoru besterentzeko prozeduretan Nafarroako Gobernu departamentu eskudunak edo, bestela, kasuan kasuko sozietate instrumentalak honako alderdi hauei buruzko baldintza batzuk bete daitezela eskatu edo baloratuko du.

Zioak: Artikulu hau eta lurzati hirigintza destinoaren arabera besterentzeko prozedurak bereiztea planteatzen duten zuzenketak bateratzea. Era berean, "eskatu edo baloratu ahalko du" esan ordez "eskatu edo baloratuko du." esatea planteatzen da.

17. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa

Testu berria proposatzen da lehendabiziko lerrokadan, honakoa dioena:

"...sozietate instrumental publikoak honako alderdi hauei buruzko baldintza batzuk bete daitezela eskatu edo baloratu beharko du..."

Zioak: 4. artikuluan azaldutako baldintzak eskatu eta baloratzen direla ziurtatu beharko da.

18. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa

4. artikuluari beste letra bat gehitzea proposatzen da:

f) Etxebizitzak saltzeko aurreikusitako prezioa.

Zioak: Lehiaketaren balorazioko funtsezko alderdi bat adjudikazioa hartzen duen sustatzaileak etxebizitzak saltzeko aurreikusi duen prezioa izan behar da. Horri esker prezioa ez litzateke aldatuko aurrerago.

19. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

Artikulu berri bat:

5. artikulua. Jarduera ekonomikoetako eremuko lurzoru besterentzeko prozeduretan, Nafarroako Gobernu departamentu eskudunak edo, bestela, kasuan kasuko sozietate instrumentalak honako alderdi hauei buruzko baldintza batzuk zehaztuko ditu eta horiek betetzea eskatuko du:

a) Jarduera ekonomikoen eremua eta etxebizitzetarako eremua bateratzeko eredua, bai eta biak ingurunearekin bateratzekoa ere.

b) Proposamenaren bideragarritasun teknikoa bermatzeko, lizitatzailleek proposamenean hitz emandako baliabideen ezaugarri profesional eta teknikoak".

c) Arkitektura eta ingurugiroaren aldetiko kalitatea.

d) Egin gogo den sustapenaren bideregarritasun ekonomikoa.

e) Ezarri asmo diren jarduerak lurraldean, gizarlean eta ekonomian, lan arloan eta ingurugiroan izanen duten eragina.

Zioak: Merkataritzako eremuko lurzorurako baldintzak eta etxebizitzetarako eremukoak bereiztea.

20. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

Artikulu bat gehitzea proposatzen dugu.

5. artikulua. 1. Adjudikazio hartzaile diren sustatzaileek etxebizitzak adjudikatuko dituzte Nafarroako Gobernu departamentu eskudunak horretarako onetsitako baremoari edo lehiaketaren arduraduna den sozietate instrumentalak onetsitakoari jarraituz. Baremo hori lehiaketa horren baldintza administratiboen barruan sartuko da.

2. Etxebizitzen salmenta edo adjudikazio prezioa ezingo da lehiaketan adjudikazio hartzaile den sustatzaileak eskainitakoa baino handiagoa izan.

3. Nafarroako Gobernuak lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideak erabili ahalko ditu foru lege honen ariora adjudikatutako lurzatie-tan aurrerantzean izan daitezkeen etxebizitzaren eskualdatzeetan. Nafarroako Gobernuak ez badu erabiltzen toki entitateak erabili ahalko du.

4. Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez finkatuko ditu lurzoruaren prezioa igota eskualdatu ondoren lehenengo eskualdaketarekiko gertatu den prezio igoera hori baloratzeko irizpideak. Alde hori Nafarroako Gobernuari itzuliko zaio.

Zioak: Beharrezkoa da etxebizitzaren adjudikazioa ahalik eta bidezko eta zuzenena izatea.

Beharrezkoa da argi geratzea lurzatiek adjudikatzen den unetik bertatik sustapenaren parametro ekonomikoak zein diren, etxebizitzaren adjudikazio hartzaileek jakin dezaten zer nolako inbertsiorik egin behar dioten aurre.

Lurzoru publikoaren gaineko espekulazioa kontrolatzeko modurik eraginkorrena botere publikoek esku hartzeko aukera izatea da.

Etxebizitzaren geroagoko eskualdatzeetan gerta daitezkeen prezio igoerak hein handi batean lurzoruaren balioaren araberrakoak dira. Lehiaketa bidezko lurzoruaren adjudikazio prezioa "prezio politikoa" denez, eta ez merkatukoa, konpentsazio moduan neurriak ezarri behar dira erregelamendu bidez, lurzoru publikoaren gaineko espekulazioak ekiditeko.

21. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Hona hemen:

"5. artikulua. Babes ofizialeko etxebizitza guztiak, duten babes araubidea edozein delarik ere, zozketa bidez adjudikatuko zaie azken erabiltzaileei.

Zozketa hori publikoa izanen da eta babes ofizialeko etxebizitzaren baremoa aplikatuta Nafarroako Gobernuak ezartzen duen gutxienezko puntuazioa lortu duten eskatzaileen artean egiten da. Zozketa eskatzaile guztiek lortutako puntuazio zerrendak jendaurrean jarri eta ondoko erreklamazio epea iragan ondoren egiten da.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Departamentuari dagokio zuzenean baremoa aplikatu eta eskatzaile bakoitzak lortutako puntuazioa ezartzea, bai eta aurkeztu diren erreklamazioak ebaztea ere."

Zioak: Prozedura objektiboagoa eta gardena goa ezartzea, sustatzen diren babes ofizialeko etxebizitzak azken erabiltzaileei adjudikatzean.

22. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona hemen:

"6. artikulua. Foru Lege honetako 2. artikuluko c) letran aipatzen diren babes ofizialeko etxebizitzaren azken erabiltzaileendako salmenta prezioei, hirigintzako kargen arabera dagokiena kenduko zaie."

Zioak: Eguesibarreko Udalari lagatako % 10ari dagozkion etxebizitzak dira. Lagapen hori hirigintzako kargetatik libre dago eta ondorioz, horrek eragina izan behar du etxebizitza horien salmenta prezioan.

XEDAPEN GEHIGARRIEI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

23. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

Xedapen gehigarri berria:

Bigarrena. Sarrigurengo ondasun publikoak besterentzean lortutako baliabide ekonomikoak etxebizitza publiko gehiago eraikitzeko Lurzoru Publikoko Foru Bankuan lurzoru gehiago eskuratzeko erabiliko dira.

Zioak: Lurzoru Publikoko Foru Bankua kapitalizatze behar beste baliabide ekonomiko publiko sortzea, Foru Komunitateko herritarrei etxebizitzak eskuratzeko erraztasunak emanen dizkieten ekimenak bultzatzeko.

TITULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

24. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Titulua ordezteko zuzenketa

“Foru Lege Proiektua, Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu, besterendu eta bertan eraikitzeko prozesua arautzen duena.”

Zioak: Lege proiektu honen helburuen artean Sarrigurengo eko-hiriaren proiektua egin ahal izateko lurzoru publikoa besterentzeko prozesua arautzea dago; beraz, tituluari eta lege proiektuari buruzko gainerako erreferentzietan sartu behar da “besterentze” terminoa.

ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

25. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari gehiketa egiteko zuzenketa

Bigarren lerrokadako bigarren lerroan sartu:

Proiektu horren helburu nagusia etxebizitza planetan ezarritako araubideetako baten pean babestutako etxebizitzaren eskaintza zabala egitea da, Iruñerri osotik datorren eskaerari erantzuteko.

Zioak: Zioen azalpena aurkeztutako zuzenketekin bateratzea.

26. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari gehiketa egiteko zuzenketa

Laugarren lerrokadaren bukaeran ondokoa gehitzea:

...garaiz aurre egiteko. Bestalde, eta antolamenduan gune bat osatuko duen multzoa taxutzeko, “Ekonomi Jardueretarako” eremu bat ezarriko

da, hartan merkataritzako jarduerak eta zerbitzuen arlokoak ezarri ahal izateko.

Zioak: Zioen azalpena aurkeztutako zuzenketekin bateratzea.

27. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMOCRATAS
DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko bosgarren lerrokada aldatzeko zuzenketa. Honela geratuko da:

“Helburuak horiek direla, foru lege honek Sarrigurengo eko-hiriaren proiektua gauzatzeko behar den lurzoru publikoa besterentzeko prozesua arautzen du. Horretarako, Nafarroako Gobernuak indarra duten legeetan ezarrita dauden aginduzko hirigintza baliabideak tramitatu ditu. Aurreikusitako helburu soziala kontuan harturik, egoki ikusi da lurzoruaren besterentzeari ekiteko enkantearen bidea bazter uztea, lurzoru hori etxebizitzak sustatzeko bada, babes publikoko araubideretakoren batean edo irabazteko asmorik ez duten laguntzako entitateek edo gizarte entitateek sustatutako ekipamendu eta zerbitzuetarako bada. Horretarako, zorua besterendu edo eskualdatzeko bide hauexek ezarri dira: kostubidezko lagapen edo lehiaketa publikoa, Lurralde Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikularekin bat; beste administrazio publiko batzuei edo Nafarroako Gobernuaren edo beste Administrazio batzuen sozietate instrumentalei zuzenean, foru lege bereko 274. artikulua aipatutako lagapenen bidea erabiliz. Bestalde, enkante publiko bidez egiten da ondasunen besterentzea edo eskualdatzea, ondasun horiek etxebizitza libreen araubidean eraki daitezkeen etxebizitzetarako edo merkataritza, industria eta zerbitzuetarako edo irabazteko asmoarekin erabili edo ustia daitezkeen ondasunak direnean. Gainera, lurzatiak eta haiei dagozkien eskubideak foru lege honen helburu sozialak betetzeko egoki diren ondasun eta eskubideekin trukatzeko arauak ere ematen dira.”

Zioak: Zioen azalpena egindako zuzenketak kontuan hartuz testuaren edukiarekin bateratzea.

28. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa

Bosgarren lerrokadako zortzigarren lerroa aldatzea:

...balidabideak tramitatu ditu. Etxebizitzen arloan, lurzoruaren inguruko legeriaren eta merkatuaren aldakortasunagatik komenigarria da indarrean dagoen legerian aurreikusitako besterentze aukera eta formula guztiak kontuan hartzea, lortu nahi den helburu sozial hori erdiesten bereziki laguntzeko. Hortaz, zorua besterendu edo eskualdatzeko...

Zioak: Zioen azalpena aurkeztutako zuzenketekin bateratzea.

29. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

Seigarren lerrokadako bigarren lerroa aldatzea:

...helburuen ildotik, lurzorua besterentzeko prozesuetan, hautatutako formularen edozein delarik ere, eskatu eta baloratuko dira (...) baldintza batzuk, zertarako eta...

Zioak: Zioen azalpena aurkeztutako zuzenketekin bateratzea.

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren proiektua*OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK*

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko urriaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak eta foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordera igorri da.

Iruñean, 2000ko urriaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen: "Foru Lege proposamena, Kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzkoa".

Biltzarrak, 2000ko urriaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2000ko ekainaren 12ko 49 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egin dezan alkateek zein kontzejuburuek kontratazioak egiteko dituzten eskumenei buruz Nafarroako Kontseiluak emandako irizpena

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko urriaren 5ean eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egin dezan alkateek zein kontzejuburuek kontratazioak egiteko dituzten eskumenei buruz Nafarroako Kontseiluak emandako irizpena".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko urriaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egin dezan alkateek zein kontzejuburuek kontratazioak egiteko dituzten eskumenei buruz Nafarroako Kontseiluak emandako irizpena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere egin dezan Nafarroako Kontseiluak emandako irizpena. Irizpenak ezartzen duen legez, foru araua estatukoaren gainetik dago Nafarroako alkateek eta kontzejuburuek administrazio-kontratuak egiteko eta ondasunak erosi eta besterentzeko dituzten eskurantzak direla eta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du informazioa emateko ezarri beharreko tresnak ezar ditzan; helburua da Nafarroako udal eta kontzejuek ez dezatela segurtasun juridikorik eza pairatu eta, Nafarroako Kontseiluaren irizpena oinarri, toki entitate guztiek interpretazio bera egin dezatela.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da botika generikoak ezagutzeko eta horien gainean informatzeko eta sentsibilizatzeko kanpaina bat abian jar dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko urriaren 5ean eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da botika generikoak ezagutzeko eta horien gainean informatzeko eta sentsibilizatzeko kanpaina bat abian jar dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko urriaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da botika generikoak ezagutzeko eta horien gainean informatzeko eta sentsibilizatzeko kanpaina bat abian jar dezan

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du botika generikoak eza-

gutzeko eta horien gainean informatzeko eta sentsibilizatzeko kanpaina bat abian jar dezan, Nafarroako osasun arloko profesionalen zuzendua, botika generikoak erabil ditzaten. Kanpaina horren helburu nagusia izanen da profesional horiek informazio aseptoago, orekatuago eta osatuago izan dezaten; horrela, orain arte baino hobeki errezetatuko dituzte botikak, eta ahal dela, kostu-eragingarritasun printzipioari lotuko. Ondokoak ere izanen ditu helburu: Nafarroako osasun zerbitzuaren kalitatea hobetzea eta baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren beste esparru batzuetara ere zuzentzeko. Kanpaina horrek merkatura ateratzen diren botika berriak nabarmendu beharko ditu bereziki.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du osasun-profesionalentzako, erabiltzaileentzako eta gaixoentzako programa bat abiatu dezan, kalitate bera eta prezio baxuagoa duten aldetik botika generikoak saldu eta erabiltzeko ohitura sustatzearren.

Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan erregaien salneurrien igoera saihesteko

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko urriaren 5ean eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan erregaien salneurrien igoera saihesteko".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko urriaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan erregaien salneurrien igoera saihesteko

Nafarroako Legebiltzarrak Estatuko Gobernuari zera eskatzen dio:

1.- Beharrezkoak diren erabakiak hartzea, nekazaritzarako erregaien gehiegizko prezio igoerak ekiditeko.

2. Hartu beharreko neurrien artean, Erregaien gaineko Zerga Bereziaren funtsezko murrizketa ezartzea, nekazarien errentak mantentzearen alde arituz.

Erabakia. Horren bidez, Nazioko Gobernua premiatzen da erregaien prezioaren inguruko neurriak har ditzan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko urriaren 5ean eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nazioko Gobernua premiatzen da erregaien prezioaren inguruko neurriak har ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko urriaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nazioko Gobernua premiatzen da erregaien prezioaren inguruko neurriak har ditzan

1. Egoeraren larria ikusita, epe laburreko eta ertaineko neurrien multzo bat gauzatzea, energia gehiago aurrezteko, energien dibertsifikazioan aurrera egiteko eta energia iturri alternatiboak garatu eta erabil daitezten sustatzeko.

2. Ukitutako sektoreei deitzea, prezioen egungo gorakadak haiei egindako kaltea ebaluatzeko, denboraren ikuspegitik haien aurreikuspena aztertzeke eta behar den denboraz behar diren neurriak hartzeke, egoera honek ekar ditzakeen kalteak arintzearren.

3. Lurraldeetako administrazioekin koordinaturik, garraio publikoaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetu eta areagotzeko neurrien plan bat sustatzea, herritarrek hura hobeki eta gehiago erabil dezaten sustatzea eta erregaien kontsumoan aurrezteko bideak ematea.

4. Espainiako Gobernuak konpromisoa hartzea Europako Batasuna premiatzeko gasolio profesional berezi bat jar dezan erregai hori erabiltzen duten sektoreentzat; araubide fiskal berezi bat ere izanen dute sektore horiek, partikularrek erabiltzen duten gasolioarena baino arinagoa. Araubide hori 92/81 eta 92/82 jarraibideetan aurreikusiko da eta Zerga Bereziei buruzko 38/1992 Legean sartuko da.

5. Petrolioaren prezioek goitik jarraitzen duten bitartean:

a) Nekazari eta arrantzaleentzako gasolioaren gaineko zerga bereziak berehala merketuko dira, aldi baterako, Europako Erkidegoko arauak ezarritako gutxienerako mailaraino.

b) Errepideko garraio publikoaren eta taxien sektorerako berehala eta aldi baterako behar diren mekanismoak ezartzea, hidrokarburoen gaineko zerga itzuli ahal izan dakien, Europako arauetan ezarritako gutxienerako tasaraino.

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren araubidea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araubide Berezi Erraztua berraztertzea, aipatu jarduera horiei egozten ahal zaizkien etekin eta kostuak ahal den guztian gutxitzeko, betiere erregaien kostuak guztira jasaten duen gorakadaren arabera.

d) Espainian erregaien produkzioan eta birfin-tze eta banatze lanetan ari diren enpresen sektorean izaten diren aparteko etekinen gaineko tasa berezi bat ezartzea ahalbidetuko duten lege mekanismoak aztertzea.

6. Espainiako merkatuak erregaien banaketan eta salmentan duen lehiakortasun eskasak irauten duen bitartean:

a) Gobernuak erregaien salmentako gehienerako prezioak ezartzeko ahalmena berreskuratuko du, merkatuaren egoera berrirako egokiak diren formulen bitartez.

b) Lehiaren Epaitegiak dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak handitzea, sektore horretan gertatzen diren oligopolio egoerak kontrolatu eta zehatzeko esku-hartze aktibo eta arina ahalbidetzeko, eta merkatu horren gardentasunaren gaineko zainketa hobetzea.

7. Hidrokarburoen sektoreari buruzko 34/1998 Legeko hamabosgarren xedapen gehigarria aldatzea; egun, haren arabera, debeku da era guztietako kooperatibek bazkide ez diren hirugarrenei erregaia hornitzea. Jarduera horretarako baimena emateko da, betiere hirugarrenei saltzeko instalazioek behar dituzten jarraibide tekniko eta segurtasunezkoak bete beharko dira.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere langileen eta azpikontrataturako langileen segurtasuna eta osasuna bermatuko dituen aurreneurrien plan bat egin dezan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere langileen eta azpikontrataturako langileen segurtasuna eta osasuna bermatuko dituen aurreneurrien plan bat egin dezan".

Biltzarrak, 2000ko urriaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2000ko maiatzaren 10eko 39 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--